

Ostirala, 2008ko urtarrilak 18, 19:39:56an berritua

PAPERREKO EDIZIOA EUSKAL HERRIA MUNDUA KIROLA PLAZA**EZTABAIDAGUNEA BLOGAK BEREZIAK HARPIDETU****Papereko edizioa** Asteazkena, 2008ko urtarrilak 2[SAILAK >>](#) | [Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#) |**PLAZA**

Urte hasiera freskagarria

Urtea ondo hasteko, lasterketa solidarioa egin dute Donostian ehun bainulari inguruk, Kontxako hondartzan: 'Kontxapuzon'.

idoia etxeberrria

Donostia

Uretan plisti-plasta. Hainbat lagunek halaxe hasi ohi dute urtea. Munduko toki askotan. Eta aurten, baita Donostian ere. Termometroko bost graduek askorik lagundu ez arren, 103 bainulari sartu ziren atzo itsasora Kontxako hondartzan. Eguzkia zerutik keinuka zutela, hori bai. 200 metro egin zituzten igerian, buia bateraino joan eta etorri. Lasterketaren helburua, laguntzea: esklerosia duten gaixoentzat dirua batzea. Tximistarri waterpolo elkarteak antolatu du *Kontxapuzon* ekimena. Lehen aldiz. Eta oso arrakastatsua gertatu da, Joseba Urrutia antolatzailearen esanetan. «Beldur ginen jende gutxi etorriko ote zen... baina ez. Justu kontrako: opariak justu-justu iritsi dira denentzat, eta zopa bukatu egin da! Oso pozik gaude, eta parte-hartzaileak ere oso gustura ibili dira».

Badirudi jendea irrikaz zegoela urte berriaren etorrera modu berezian ospatzeko. «Baina hortaz gainera, laguntzeko gogoia zutelako etorri dira asko; gaixoekin bat egiteko». Parte hartu nahi zutenek 11:30ean zuten hitzordua, Kontxako erlojuetan. Ordua baino lehen jende mordoxka zegoen zain; nagusiak gazteak baino gehiago. Adin guztietako jendeak zuen igeri egiteko aukera (18 urtetik beherakoek gurasoen baimenarekin). Izena ematean bost euro ordaindu zituzten guztiek. Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkartearen (Ademgi) alde. Kutxa batzuk ere jarri zituzten, nahi zuenak borondatea eman zezan; 2008ko egutegia ematen zioten trukean. «Babes handia jaso dugu. Jendea oso kontzientziatuta agertu da».

12:00ak aldera hasi zen lasterketa. Bukaeran, zopa beroa zuten zain. Indarberritzeko. Eta ondoren dutxa, Kontxako aldageletan. Gurutze Gorria bertan izan zen: hotzak eragindako ondoezak edo azken egunetako jan-edanak norbaiti kalte egingo balio ere. Eta lasterketa bukatu ezinik zebilen gizon bat *zodiacera* igo zuten. Opari mordoa banatu zituzten. Irabaztea ez zen garrantzitsuena.

JAIME CABALLERO TXAPELDUN. Lasterketa Jaime Caballero igerilariari omenaldia egiteko ere bazen: 2007ko bigarren markarik onena lortu du donostiarrak, Manchako itsasartearen hamar ordu eta 29 minutuan zeharkatuta. Eta berak irabazi zuen lasterketa. Erraz. «Harentzat 200 metro ez dira ezer!». Kirolariek gainera, ohiko bainulariak ere bazeuden; Xabier Ezeizabarrena esaterako, Donostiako Udaleko EAJko bozeramailea bera.

Lasterketa urteroko ohitura bihurtu nahiko lukete. Miarritzen hala da: abenduaren 30ean bainatzen dira, Ours Blancs (Hartz Zuriak) igeriketa klubak antolatuta. Duela 80 bat urtetik. Portu zaharreko hondartzatik abiatuta, oren laurdenez igerika ibili dira oraingoan ere. Irteeran ardo bero sorta bat zuten zain.

BLOGAK[Mendiko behatokia](#)**Bixilorak**

Erantzunak: 0

[Nafar periferiatik](#)**Agintekeriaren egiak**

Erantzunak: 0

[Mendiko behatokia](#)**San Anton**

Erantzunak: 2

HARPIDEDUNEN KIOSKOA**Saridunak****EZTABAIDAGUNEA**[Gatazka gainditzeko Ibarretxeren ibilbide orria](#)

Eman zure iritzia!

['18/98 auzi'-ko epaia. Eman zure iritzia](#)

Eman zure iritzia!

[Badiola presidente hautatzea Realarentzat ona izango dela uste duzu?](#) Bai Ez

© BERRIA-Edizio Digitala
berria@berria.info - www.berria.info

Lege Informazioa

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel 943 304 030 Fax 943 590 172

